

GAIA: Lasarte-Oriako Udalaren informazioa koronabirusaren pandemiaren aurrean
EGUNA: 2020/06/04

Lasarte-Oriako Udalak itxi egingo ditu udal-bulegoak, eta telefonoz, posta elektronikoz edo aldeztu aurretik hitzordua eskatuta bakarrik funtzionatuko dute, ezinbestekoa den kasuetan. Ekipamendu sozialak, kulturala eta kiroletakoak ere itxi egingo dira.

Lehenik eta behin, udalak lasaitasunerako mezua helarazi nahi die Lasarte-Oriako herritarrei, eta hedabideak baliatuko ditu aurrera eraman beharreko prebentzio-neurriak indartzeko, hartara kutsatze posibleak saihesteko.

Jarraibideak sinpleak eta aplikatzen errazak dira:

- Eskuetako higieena maiz: urarekin eta xaboiarekin garbitzea.
- Adineko pertsonen eta haurren kontrol termikoa, sintomaren bat ikusiz gero.
- Arnas arazoa edo sukarra bezalako sintomaren bat izanez gero, etxean egotea eta 900.20.30.50 telefonora deitzea.
- Jende-pilaketak saihestea, adineko pertsonena batez ere.

Izaera prebentiboko neurri horien helburua da populazioko kolektibo ahulenak babestea eta kutsatutako pertsonen kopuruari eustea. Hala ere, Lasarte-Oriako herritarrei lasaitasunerako mezua helaraztea berresten dugu, eta herritarrei eskatzen diegu ihes egin dezala gezur eta zurrumurruetatik eta informa dadila osasun-agintariek beren komunikabideetan edo komunikabide orokorretan emandako informazioaren bidez.

Informazio ofiziala esteka hauetan lor daiteke:

- Osasunaren Munduko Erakundea: <https://www.who.int/es/emergencies/diseases/novel-coronavirus-2019/advice-for-public/q-a-coronaviruses>
- Osasun Ministerioa: <https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/ciudadania.htm>
- Osakidetza: <http://www.euskadi.eus/nuevo-coronavirus-covid-19/>

Arrisku handia dago populazio ahulenentzat, hala nola adinekoen kolektiboak biltzen dituztenentzat, eta beharrezkoa da kutsatzeko arriskua minimizatzen bideratutako neurriak hartzea esparru askotan (sozialak, hezkuntzakoak, kulturalak, kiroletakoak...).

Udalak beharrezkotzat jotzen du hartutako neurrien maila handitzea eta neurri horiek adinekoen egoitza-ingurunera ez ezik komunitate-ingurunera edo adineko pertsonen biltzeko gunetara eta haien jardueretara ere hedatzea, horiek askotan bateraezinak izaten baitira arretazko neurri unibertsalekin. Antzeko zerbait gertatzen da haurrekin eta Hezkuntza Sailak ezarritako jarraibideekin.

Beharrezkoa da ekitaldi masibo edo jendetsuetara joatea mugatzea, eta horrek eragin zuzena izango du udalaren programazioan eta agendan.

Udalak bere eskumeneko gaietan orain artean hartutako neurriei dagokienez, eta osasun-agintariek emandako gomendioen arabera, honako hauek dira:

- **[Merkataritzari, ostalaritzari eta zerbitzu pertsonalei laguntzak](#)**: Lasarte-Oriako udalak merkataritzako, ostalaritzako eta zerbitzu pertsonaletako establezimenduek 500.000 euroko laguntzak jasotzeko baldintzak arautzen dituzten oinarriak onetsi ditu. Establezimendu bakoitzeko, gehieneko laguntza 1.300 eurokoa da.
- **[Asteazkeneroko kale-merkatua](#)**: asteazkeneroko kale-merkatua Andatza plazara joango da zerbitzua hobeto kontrolatzeko. Asteazken honetatik aurrera postu guztiek berriro eskainiko dituzte produktuak plaza horretan, eta furgonetak Aralar plazan jarriko dira
- **[Manttangorri bus-zerbitzua](#)**: Manttangorri autobus-zerbitzu municipalari eragiten dioten neurri berriak hartu dira. Neurri berri horiek ekainaren 1tik aurrera hasiko dira.



- [Deseskalada Udal Kirol Zerbitzuan](#): Buruntzaldeko udalerriekin koordinatuta egutegi orientagarri bat ezarri da kirol-instalazioak irekitzeko. Gainera, Udal kirol-instalazioetarako ikastaroengatik eta abonamenduengatik ordaindutako tarifen zati proportzionala itzultzeko izapideak hasi dira.
- [10 eguneko dolu ofiziala](#): Lasarte-Oriako Alkatetzak bat egin du COVID-19 gaitzaren ondorioz hildako pertsonen oroitzapenetan dekretatutako dolu ofizialarekin. Hori dela eta, udaletxeko banderak haga erdian jartzea agindu du, eta herritarrei dei egin die minutu bateko isilunea egiteko 12:00etan.
- [Udal Liburutegi zerbitzuaren martxan](#): Lasarte-Oriako udal liburutegiak astearte honetan, maiatzaren 26a, irekiko ditu ateak, liburuak itzultzeko gune batekin, eta, pixkanaka, itxi zutenetik bertan behera geratu ziren zerbitzuei berrekingo die.
- [COVID-19aren bulegoa](#): COVID-19ren bulegoak, laguntzak emateaz eta kudeatzeaz arduratzen denak, 99 laguntza-eskaera ebatzi ditu bi astetan, eta 47 laguntza eman dira, guztira 60.300 euro egiten dutenak.
- [San Pedro jaiak](#): COVID-19aren pandemiaren ondorioz San Pedro jaiak normaltasunez ospatzeko modurik ez dagoenez gero, San Pedro jaiak bertan behera uzteko erabaki mingarria hartu du Udalak, nahiz eta espero duen, baldintzak betetzen direnean, jarduera tradizioaletatik batzuk ospatu ahal izatea.
- [Kit higieniko-sanitarioa](#): Usurbilgo Lanbide Eskolak 478 aurpegi-pantaila eman ditu dohainik, Lasarte-Oriako establezimendu guztiei banatuko zaien kit higieniko-sanitarioa osatzeko
- [2020ko Literatura-Lehiaketak](#): Lehiaketen oinarriak aldatu egin dira, etxetik parte hartzea eta posta elektronikoaren bidez entregatzea errazteko.
- [Udal liburutegiaren oharra](#): Liburutegiko erabiltzaileek maileguan duten materiala itzultzeko azken eguna ekainaren 15era arte luzatu da.
- [COVID-19aren ondoriozko laguntza pertsonalak](#): Lasarte-Oriako alkateak ABEEE (ERTE) bat aplikatu zaien edo langabezian geratu diren pertsoneri edota jarduera eten duten autonomoei zuzendutako 400.000 euroko laguntzak jasotzeko baldintzak arautzen dituzten oinarriak onetsi ditu.
- [770.000 euro onetsi ditu neurri sozialak hartzeko](#): Lasarte-Oriako udalak 770.000 euro onetsi ditu izaera sozialeko laguntzen partidetarako, batzuk langabezian edo ABEEE (ERTE) batean jausi diren pertsoneri edo beren jarduera eten duten autonomoei bideratua, eta beste batzuk herriko merkataritzari, ostalaritzari eta zerbitzu pertsonalei sostengua ematera bideratuak.
- [Pertsonen laguntza psikologikoa](#): Eusko Jaurlaritzak Adi programa jarri du martxan, konfinamendu- eta alarma-egoeraren ondorioz ondoez emozionala areagotu zaien pertsonen laguntza psikologikoaren beharrei erantzuteko.
- [Manttangorri hiribusaren zerbitzua](#): COVID-19agatik gaur egun bizi dugun egoera dela eta, Manttangorri autobus-zerbitzu municipalari eragiten dioten neurri berriak hartu ditu udalak
- [Enprekin kontratuak](#): Udalak bere zerbitzu guztietako langileen soldata% 100ean mantenduko du
- [Oporrak Bakean](#): Espainiarako Delegazio Saharuiak jakinarazi digunez, 2020ko udarako "Oporrak Bakean" programa bertan behera geratuko da.
- [500.000 euro neurri-sorta baterako](#): Lasarte-Oriako Udalak 500.000 euroko gizarte neurrien plan berria onetsiko du, COVID-19 delakoaren ondorioz familiei (Tlfn: 636.148.998) eta merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu pertsonalei (Tlfn 628.694.138) laguntzeko.
- [Gatazketan laguntzeko doako aholkularitza](#): Baketik-ek gatazketan laguntzeko doako aholkularitza eta bitartekaritza zerbitzua eskaintzen du Covid19k eragindako konfinamenduan. Zerbitzua apirilaren 14tik aurrera egongo da erabilgarri.



- **Eten digitala:** Alkateak idazki bana bidali die Hezkuntza eta Enplegu sailei, beren etxeetan Internetarako sarbiderik ez duten eta eskola-adinean dauden seme-alabak dituzten edo Lanbideren aurrean prestazio bat bideratu behar duten familiei buruz.
- **Lasarte-Oria Balkoietara!** Balkoietara! lehiaketa jarriko dugu martxan, etxeetan eta balkoietan egunero sortzen dugun kultura guztiaren omenez eta aitortpen gisa.
- **Beterri-Buruntzako Arreta Zerbitzua:** Koronabirusak sortutako krisi ekonomikoari aurre egiteko, Beterri-Buruntza eskualdeko enpresa eta autonomoen bidelagun izango da..
- **Etxebizitzaren errenta:** Dagoeneko eska daitezke COVID-19aren ondoriozko alarma-egoera dela-eta etxebizitzaren errenta pagatzeko laguntzak, Eusko Jaurlaritzaren publikoa nahiz pribatua izan.
- **KZGunea:** urrutiko zerbitzua eskaintzen du telefonoz eta posta elektronikoz, COVID-19k zentroak ixtearen ondorioz sortutako zalantza teknologiko guztiak argitzeko.
- **Desinfekzioa:** eremu batzuk desinfektatzeari ekin zaio, hala nola anbulatorioa, Atsobakar egoitza, edukiontziak ... Hala ere, leku publikoetan heldulekuak erabiltzean kontuz ibiltzea gomendatzen da.
- **Hondakinak:** Gogorarazten da koronabirusa duten pertsonekin sortutako eta/edo kontaktuan egon diren hondakin guztiak, edota birusarekin kontaktuan egon ahal izan den materiala (eskularruak, maskarak...), poltsa zigilatuetan sartu behar direla eta errefuseko zabor-ontzietan bota behar direla, inoiz ez birziklatzeko.
- **Udal liburutegia:** Udal Liburutegira materiala itzultzeko epea maiatzaren 4ra arte luzatzen dela jakinarazten da.
- **Zerga-arloko neurriak:** udalak emandako zerbitzuengatik ordaindu beharreko zenbait tasa eta zergaren kobrantzak geroratzea.
- **Etxean artatzeko zerbitzua:** Udalak zerbitzu bat adostu du Gurutze Gorriarekin, 65 urtetik gorako pertsoneri eta/edo dependentziadunei janaria eta botikak erosten laguntzeko.
- **Manttangorri hiribusaren zerbitzua:** zerbitzuak% 50era murrizten dira egoera horrek irauten duen bitartean. Ohiko garbiketa areagotu egingo da, kontaktuko eremuak desinfektatzea ahalbidetzen duten produktu espezifikoekin. Autobusaren garbiketa areagotu egingo da zerbitzu-orduetan, eremu komunetan (barrak, sakagailuak, eskutokiak, heldulekuak...) produktu desinfektatzailea aplikatuz.
- **Kultura eta Hezkuntza:** itxi egingo dira Kulturetxea, Liburutegi Munizipala, Musika eta Dantzako Eskola eta Antonio Mercero Gunea. Bertan behera geratuko dira kultura-agendan aurreikusitako jarduera kultural guztiak, baita eskolak eta ikastaroak ere. HHIak ere ez du funtzionatuko.
- **Zerbitzu Sozialak:** Jubilatuetxe itxi egingo da. Eten egin dira *Ondo Ibili – Paseo Osasungarriak* eta *KoTenT-Tu* programak. Prebentziozko neurriak hartuko dira Etxean Laguntzeko Zerbitzuan Villa Mirentxun, Zerbitzu Sozialetako bulegoek telefonoz emango dute arreta, eta betiere alde aurretik hitzordua eskatuta (943.37.61.79).
- **Sexuaren berdintasunerako Emakume-Zentroa:** itxi egingo da eta bertan behera geratuko dira ikastaroak.
- **Kirolak:** Itxi egingo dira *Maialen Chourraut* kiroldegi munizipala, Michelingo kirolgunea eta trinket munizipala.
- **Gazteria:** Itxi egingo dira Gaztelekua eta KZgunea, eta bertan behera geratuko dira jarduerak eta ikastaroak.
- **Euskara:** Euskaltegi munizipala itxi egingo da.
- **Kontsumitzaileen Informaziorako Udal-Bulegoa:** zerbitzua itxi egingo da.
- **Asteroko kale-azoka:** asteazkenetako kale-azoka bertan behera geratuko da.
- **Terrazak:** aldi baterako etenda geratuko dira ostalaritzako establezimenduetako terrazen lizentziak.
- **Udaletxeko bulego orokorrak:** publikoarentzat itxita egongo dira. Zerbitzua telefonoz (943.37.60.55) edo online (udala@lasarte-oria.eus) emango da. Aurrez aurreko zerbitzua beharrezkoa izanez gero, alde aurretik hitzordua eskatuta bakarrik onartuko da.



- **Kobrantza eta errentak:** Udalari egin beharreko pagamenduak tramitazio elektronikoaren bidez edo banku-entitateetan ordainduz egin beharko dira.
- **Garbiketako zerbitzuak:** areagotu egingo da instalazio municipal guztien garbiketa arrunta produktu espezifikoekin, kontaktuko eremuak desinfektatu ahal izateko.
- **Ezkontzak eta ehorzketak:** Ezkontza zibiletan, ezkongaei eta lekukoei bakarrik utziko zaie sartzan. Ehorzketetan saihestu egin behar dira jende-pilaketak, eta ahal dela beti distantziak mantendu.
- **Udaleko bilkurak:** Udaleko organo kolegiatuen bilkurak (batzorde informatiboak, aholku-batzordeak, gobernu lokaleko batzarrak eta udalbatzarraren osoko bilkurak), guztiz beharrezkoak badira, atek itxita egingo direla ezartzen da.

Aurreko neurri horiek guztiak dekretua sinatzen denetik aurrera egongo dira indarrean, 15 egunez, eta luzatu ahalko dira baldin eta beharrezkotzat jotzen bada.

Azkenik, lasarteoriarrei kolabora dezatela eskatzen zaie, gaixotasuna zabaltzeko aukerak murrizteko, eta uneoro aintzat har ditzatela osasun-agintarien gomendioak. Lasarteoriar bakoitzaren ardura da herritarren artean kutsatzeko aukerak gutxitzen laguntzea, eta horregatik eskatzen zaie herritarrei beren jarduera soziala muga dezatela osasun-larrialdiko egoera honetan, horrela pandemiari eusten laguntzeko, espazio itxi eta jendetsuetara joatea saihestuz.

TELEFONOAK ETA EMAILAK:

Zentralita	943.37.60.55	udala@lasarte-oria.eus
Alkatetza	943.37.61.78	alkatetza@lasarte-oria.eus
Kobrantza	943.37.61.87	bilketa@lasarte-oria.eus
Hirigintza	943.37.61.89	hirigintza@lasarte-oria.eus
Zerbitzuak	943.37.01.03	zerbitzuak@lasarte-oria.eus
Zerbitzu Sozialak	943.37.61.79	gizartez@lasarte-oria.eus
Kultur Etxea	943.37.61.81	kultura@lasarte-oria.eus
Kiroldegia	943.37.61.82	kirolak@lasarte-oria.eus
Euskaltegia	943.63.16.21	euskaltegia@lasarte-oria.eus